*beharreko kuotan izango diren hobariak:*

*- Zergapekoei, Lehendakariak 2020ko azaroaren 6an hartutako 38/2020 Dekretuaren bidez, edota ondoren argitaratutako beste baten bidez, negozioa ixteko hartutako neurriren batek erasandakoek hobaria izango dute horregatik, aldakorra izango da hobaria eta kuota murriztuko zaie, 2020ko ekitaldiko laugarren hiruhilekoan haien lokala lokal itxitzat jo izan balitz egokituko litzaiekeen adina murriztu ere."*

*BIGARRENA: 2020.urtean indarrean dagoen jabari publikoren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzaren aldaketa behin betiko onartzea eta 8 artikuluari bi apartatu eranstea, 2020an aplikatuko diren hobari hauek jartzeko:*

*8. artikulua bis: Hobaria ofizioz aplikatuko da, 2020ko ekitaldiko lehenengo seihilekoaren ordaindu beharreko kuotaren gainean:*

*1) %90eko hobaria ematea 10 mahai edo gutxiago dituzten establezimenduei, eta % 66koa 10 mahai baino gehiago dituztenei, 2020ko ekitaldiko lehen seihilekoko orainagirian ordaindu beharreko kuotatik. Hobari hori ofizioz aplikatuko da Ordenantzaren 2.C) eranskineko 1., 2., 3., 4a eta 4b epigrafeetan zehaztutako okupazioetan.*

*2) Kuotaren %99ko hobaria, alderdiak hala eskatuta, okupazio berberetan aplikatuko da, baldin eta, COVID-19aren ondorioz, betiere administrazioren batek titularrari bigarren seihilekoan establezimendua irekitzea era*

*trimestre del ejercicio 2020:*

*- Los obligados al pago, que se vean afectados por las medidas de cierre del negocio adoptadas mediante el Decreto 38/2020, 6 de noviembre, del Lehendakari, así como en posteriores que puedan publicarse, serán bonificados en un importe variable que reducirá su cuota a aquella que les hubiese correspondido si su local hubiese sido considerado como local cerrado durante el cuarto trimestre del ejercicio 2020."*

*SEGUNDO: Aprobar definitivamente la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la utilización privativa y el aprovechamiento especial del dominio público municipal en vigor para el ejercicio 2020, incorporando dos nuevos apartados al artículo 8, a fin de establecer las siguientes bonificaciones que serán de aplicación en el año 2020:*

*Art. 8, bis: Se aplicará de oficio la siguiente bonificación de la cuota que corresponda abonar en el recibo del primer semestre del ejercicio 2020:*

*1) Una bonificación del 90% a los establecimientos con ocupaciones iguales o menores a 10 mesas y una bonificación del 66% a los establecimientos con ocupaciones mayores a 10 mesas de la cuota que corresponda abonar en el recibo del primer semestre del ejercicio 2020, que se aplicará de oficio, en aquellas ocupaciones definidas en el Anexo, 2, C), epígrafes 1, 2, 3, 4a y 4b de la ordenanza.*

*2) Una bonificación del 99% de la cuota, que se aplicará a instancia de parte, en las mismas ocupaciones, en el caso de que, debido al COVID-19, alguna administración impidiera de manera individualizada y puntual*

*indibidualean eta puntualki eragozten badio. Hobaria establezimendua itxita egon den denborarekiko proportzioan aplikatuko da, eta ez dira kontuan hartuko astebete baino gutxiagoko itxialdirik".*

*8. artikulua ter: Hobaria ofizioz aplikatuko da, 2020ko ekitaldiko bigarren seihilekoan ordaindu beharreko kuotaren gainean:*

*- Kuotaren % 90eko hobaria jabari publikoa 10 mahai edo gutxiagorekin okupatzen duten establezimenduei, eta % 33ko hobaria jabari publikoa 10 mahai baino gehiagorekin okupatzen duten establezimenduei, ordenantzaren 2. eranskineko C) ataleko 1, 2, 3, 4a eta 4b epigrafeetan zehaztutako okupazioetarako.*

*HIRUGARRENA: Erabaki hau izapidetzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 3/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 12koak 3.2.artikuluan ezarritakoarekin bat."===============================*

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hogeita bateko otsailaren hogeita seian.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso”

*a un titular abrir su establecimiento a lo largo del segundo semestre. La bonificación se aplicará en proporción al tiempo de cierre, y no se tendrán en cuenta posibles cierres inferiores a una semana."*

*Artículo 8 ter: La bonificación se aplicará de oficio sobre la cuota a ingresar por el segundo semestre del ejercicio 2020:*

*- Bonificación del 90% de la cuota a los establecimientos que ocupen el dominio público con 10 mesas o menos y del 33% a los establecimientos que ocupen el dominio público con más de 10 mesas, para las ocupaciones definidas en los epígrafes 1, 2, 3, 4a y 4b del apartado C del anexo 2 de la Ordenanza.*

*TERCERO: Tramitar este acuerdo a regir con efectos desde el 1 de enero del año 2020, de acuerdo con lo expuesto en el artículo 3.2 del Decreto Foral-Norma 3/2020, de 12 de mayo."*
=================================

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación , visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a veintiséis de febrero de dos mil veintiuno.

---------------

## II

## INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA

## II.1

## MOZIO ARRUNTAK

**7. Mozio arrunta, PP taldeak aurkeztua, Askatasunaren hiribidean kokatutako aldiriko autobusen geltokiak kentzeari buruz.**

“Borja Corominas Fisas Udal Talde Popularreko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Askatasun hiribidean dauden aldirietako autobusen geralekuak kentzea dela eta,Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFICACIÓN

Hiriaren erdialdera ibilgailu gutxiago sartzea beti izan da Gobernu honen helburuetako bat. Azken hamarkadetan, Donostiak ikusi du nola ugaltzen ziren oinezkoen kaleak, batez ere hiriaren erdialdean, bai eta bidegorriak eta autoen sarrera mugatzeko beste jarduera batzuk ere.

Donostiako metroa egiteko obrak eragina izaten ari dira hiriko alde askotan. Besteak beste, San Martin kaleko zirkulazioa erabat moztu behar izan da. Egia da egoera hori nahitaez jasan behar dugula, metroa eraiki nahi badugu behintzat, baina kalte handia ekarri dio ibilgailuen zirkulazioari eta, horren ondorioz, auto-ilarak sortzen dira, egunero, hiriaren erdialdean.

## II

## INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL

## II.1

## MOCIONES ORDINARIAS

**7. Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre la eliminación de las paradas de autobuses de cercanías situadas en la Avenida de la Libertad.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Municipal Popular, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA para su debate en el Pleno, sobre la eliminación de las paradas de autobuses de cercanías situadas en la Avenida de la Libertad.

JUSTIFICACIÓN

Limitar el acceso de vehículos al centro de la ciudad es uno de los objetivos que siempre ha defendido este Gobierno. Durante las últimas décadas San Sebastián ha visto cómo aumentaban las calles peatonales, con mayor incidencia en la zona centro de la ciudad, los carriles bicis y otras actuaciones encaminadas a limitarlo.

Las obras del metro en San Sebastián, que están afectando a muchas zonas de la ciudad han hecho que se corte completamente el tráfico en la calle San Martín, una situación que, si bien es necesaria para la construcción del metro, ha supuesto que el tráfico rodado se vea seriamente perjudicado y que los atascos en el centro de la ciudad sean una realidad diaria.

Gure hiriko hainbat arteria nagusitan ia ezinezkoa da “harrapatuta” gelditu gabe zirkulatzea. Hori oso maiz gertatzen da Askatasunaren hiribidean; izan ere, gure hiriko ohiko trafikoaz gain, hiri arteko autobus batzuek geralekuak dituzte erdialdeko kale horretan, eta, hori dela eta, bi erreietako bat ezin da behar bezala erabili.

2016ko otsailean, Atotxako autobus-geltokia inauguratu zen, eta, harrezkero, Lurraldebuseko hainbat lineak kale horretara eraman zituzten beren geralekuak eta beren ibilbideen abiapuntuak. Autobusak eskuineko erreian (Antigua aldera) etengabe gelditzeak ibilgailuen zirkulazioa zailtzen du, oso auto-ilara handiak eraginez; are gehiago orain, gure hirian egiten ari diren obra guztiekin, kale batzuk itxita baitaude. Dbus-eko autobusek ere ibilbidea aldatu behar izan dute, hiri barruko lineen erabiltzaileei zerbitzu egokia emateko, eta, hala, horietako askok Askatasunaren hiribidetik zirkulatzen dute orain.

Horiek horrela, gure ustez, momentu hau egokia da Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzeko Askatasunaren hiribidetik igarotzen diren Lurraldebuseko lineen ibilbideak eta geralekuak aldatzeko.

Horiek horrela, Alderdi Popularreko udal taldeak honako mozio hau aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Lurraldebuseko geralekuak Askatasunaren hiribidetik kendu eta Atotxako autobus geltokira eraman ditzala.

Donostia, 2021eko otsailaren 4a

Hay arterias principales en nuestra ciudad por las que es casi imposible circular sin quedarse “atrapado”. Un hecho que ocurre muy a menudo en la Avenida de la Libertad ya que, al tráfico habitual de nuestra ciudad se suman las paradas de los autobuses interurbanos que inutilizan uno de los dos carriles de esta céntrica calle.

En febrero de 2016 se inauguró la estación de autobuses de Atotxa, y desde entonces varias líneas de Lurraldebus trasladaron sus paradas y sus inicios de ruta a esta calle. El estacionamiento continuo de autobuses en el carril derecho (dirección Antiguo) dificulta el tráfico rodado, provocando serios atascos, y más ahora con todas las obras que se están llevando a cabo en nuestra ciudad, en las que hay calles cortadas, y en la que los autobuses de dbus han tenido que variar su recorrido para poder dar el servicio adecuado a los usuarios de las líneas urbanas, circulando, muchos de ellos, por la Avenida de la Libertad.

Ante esta situación consideramos que ha llegado el momento de pedir a la Diputación Foral de Gipuzkoa que modifique las rutas y paradas de las líneas de Lurraldebus ubicadas en la Avenida de la Libertad.

Por todo lo expuesto, el grupo municipal del Partido Popular presenta la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que suprima las paradas de Lurraldebus de la Avenida de la Libertad y las traslade éstas a la estación de autobuses de Atotxa.

San Sebastián, a 4 de febrero de 2021

Borja Corominas Fisas,
Udal Talde Popularreko bozeramailea”

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Marta Huarte Paño andreak, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marta Huarte Paño, D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EAJ/PNV ETA PSE-EE TALDEEK 7. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO N.º 7 PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ/PNV Y PSE-EE:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**7. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

“Udalbatzak, bi mila eta hogeita bateko otsailaren 25ean egindako ohiko osoko bilkuran, PP taldeak Askatasunaren hiribidetik aldiriko autobusen geralekuak kentzeari buruz aurkeztutako mozio arrunta onetsi zuen. Mozio horri zuzenketa bat egin zitzaion, EAJ/PNV eta Donostiako Sozialistak PSE-EE taldeek batera aurkeztua. Horrenbestez, hau da behin betiko onetsitako testua:

*“Hiriaren erdialdera ibilgailu gutxiago sartzea beti izan da Gobernu honen helburuetako bat. Azken hamarkadetan, Donostiak ikusi du nola ugaltzen ziren oinezkoen kaleak, batez ere hiriaren erdialdean, bai eta bidegorriak eta autoen sarrera mugatzeko beste jarduera batzuk ere.*

*Donostiako metroa egiteko obrak eragina izaten ari dira hiriko alde askotan. Besteak beste, San Martin kaleko zirkulazioa erabat moztu behar izan da. Egia da egoera hori nahitaez jasan behar dugula, metroa eraiki nahi badugu behintzat, baina kalte handia ekarri dio ibilgailuen zirkulazioari eta, horren ondorioz, auto-ilarak sortzen dira, egunero, hiriaren erdialdean.*

*Gure hiriko hainbat arteria nagusitan ia ezinezkoa da “harrapatuta” gelditu gabe zirkulatzea. Hori oso maiz gertatzen da Askatasunaren hiribidean; izan ere, gure hiriko ohiko trafikoaz gain, hiri arteko autobus batzuek geralekuak dituzte erdialdeko kale horretan, eta, hori dela eta, bi erreietako bat ezin da behar bezala erabili.*

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

“Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veinticinco de febrero de dos mil veintiuno, aprobó la siguiente Moción Ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre la eliminación de las paradas de autobuses de cercanías situadas en la Avenida de la Libertad, que incorpora una enmienda conjunta, presentada por los Grupos EAJ/PNV y Socialistas Donostiarras PSE-EE, de modificación de la parte resolutiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“Limitar el acceso de vehículos al centro de la ciudad es uno de los objetivos que siempre ha defendido este Gobierno. Durante las últimas décadas San Sebastián ha visto cómo aumentaban las calles peatonales, con mayor incidencia en la zona centro de la ciudad, los carriles bicis y otras actuaciones encaminadas a limitarlo.*

*Las obras del metro en San Sebastián, que están afectando a muchas zonas de la ciudad han hecho que se corte completamente el tráfico en la calle San Martín, una situación que, si bien es necesaria para la construcción del metro, ha supuesto que el tráfico rodado se vea seriamente perjudicado y que los atascos en el centro de la ciudad sean una realidad diaria.*

*Hay arterias principales en nuestra ciudad por las que es casi imposible circular sin quedarse “atrapado”. Un hecho que ocurre muy a menudo en la Avenida de la Libertad ya que, al tráfico habitual de nuestra ciudad se suman las paradas de los autobuses interurbanos que inutilizan uno de los dos carriles de esta céntrica calle.*

*2016ko otsailean, Atotxako autobus-geltokia inauguratu zen, eta, harrezkero, Lurraldebuseko hainbat lineak kale horretara eraman zituzten beren geralekuak eta beren ibilbideen abiapuntuak. Autobusak eskuineko erreian (Antigua aldera) etengabe gelditzeak ibilgailuen zirkulazioa zailtzen du, oso auto-ilara handiak eraginez; are gehiago orain, gure hirian egiten ari diren obra guztiekin, kale batzuk itxita baitaude. Dbus-eko autobusek ere ibilbidea aldatu behar izan dute, hiri barruko lineen erabiltzaileei zerbitzu egokia emateko, eta, hala, horietako askok Askatasunaren hiribidetik zirkulatzen dute orain.*

*Horiek horrela, gure ustez, momentu hau egokia da Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzeko Askatasunaren hiribidetik igarotzen diren Lurraldebuseko lineen ibilbideak eta geralekuak aldatzeko.*

*Horiek horrela, Alderdi Popularreko udal taldeak honako mozio hau aurkezten du:*

*MOZIOA ARRUNTA*

*Donostiako Udalbatzak, hiriaren erdialderako egiten ari den Bizitegitarako Eremuen diseinuarekin bat etorriz, Gipuzkoako Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalarekin lankidetzan aritzeko bideak ireki ditzala, Askatasunaren hiribideko eta haren inguruko zirkulazioa arrazionalizatu eta hobetu ahal izateko, betiere ados jarrita, eta lehentasunez sustatu dezala garraio jasangarria (garraio publikoa, bizikletak,oinezkoen bideak…)”.============*

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hogeita bateko

*En febrero de 2016 se inauguró la estación de autobuses de Atotxa, y desde entonces varias líneas de Lurraldebus trasladaron sus paradas y sus inicios de ruta a esta calle. El estacionamiento continuo de autobuses en el carril derecho (dirección Antiguo) dificulta el tráfico rodado, provocando serios atascos, y más ahora con todas las obras que se están llevando a cabo en nuestra ciudad, en las que hay calles cortadas, y en la que los autobuses de dbus han tenido que variar su recorrido para poder dar el servicio adecuado a los usuarios de las líneas urbanas, circulando, muchos de ellos, por la Avenida de la Libertad.*

*Ante esta situación consideramos que ha llegado el momento de pedir a la Diputación Foral de Gipuzkoa que modifique las rutas y paradas de las líneas de Lurraldebus ubicadas en la Avenida de la Libertad.*

*Por todo lo expuesto, el grupo municipal del Partido Popular presenta la siguiente*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, en sintonía con el diseño de Áreas de Prioridad Residencial que está realizando para el centro de la ciudad, insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a abrir cauces de colaboración con el ayuntamiento donostiarra que permitan abordar, de manera consensuada, la racionalización y mejora de la circulación en la Avenida de la Libertad y su entorno, impulsando de forma preferente el transporte sostenible (transporte público bicicletas, peatones…)”==================*

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a

otsailaren hogeita seian.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso"

veintiséis de febrero de dos mil veintiuno.

---------------

**8. Mozio arrunta, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Intxaurrondoko Osasun Zentroan murriztutako langileei buruz.**

"Haizea Garay Gallastegui Elkarrekin Donostia Udal Taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, UDALBATZAN AZTER DADIN, Intxaurrondoko Osasun Zentroan egiten ari diren murrizketak direla eta.

JUSTIFIKAZIOA

COVID-19ari lotutako krisi-egoerak erakutsi digu zer arrisku eta ondorio eragiten dituen osasunean eta osasun publikoan baliabideak eskas erabiltzeak edo murrizteak. Osasun-sistema publikoan lehendik ere izaten ari ziren murrizketen ondorioz, sistema tenkatu egin da, eta egoera hori bere profesionalen ahalegin izugarriari esker bakarrik jasan ahal izan da. Profesional horiek, bestalde, hobekuntzak eskatzen zituzten, lehendik ere, beren lan-baldintzetan.

Ildo horretatik, gogorarazi nahi dugu lehen mailako arretak osasun-sistemari eusteko lehen dike moduan duen garrantzia. Duela ia urtebetetik bizi dugun egoera ezagututa, eta pandemiaren azken asteetako bilakaera

**8. Moción ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a los recortes de personal que se están produciendo en el Centro de Salud de Intxaurrondo.**

"Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA PARA SU DEBATE EN PLENO relativa a los recortes que se están produciendo en el Centro de Salud de Intxaurrondo.

JUSTIFICACIÓN

La situación de crisis provocada por la COVID-19 nos ha demostrado los riesgos y las consecuencias que se derivan de escatimar o disminuir los recursos destinados a la salud y sanidad pública. Los recortes que venía arrastrando el sistema público de salud han provocado un tensionamiento del sistema que sólo se ha podido soportar por el ingente esfuerzo de sus profesionales, quienes ya venían reclamando mejoras en las condiciones laborales.

En este sentido, queremos recordar la importancia de la atención primaria como primer dique de contención del sistema sanitario. Conociendo la situación que arrastramos desde hace prácticamente un año, y viendo cómo está

ikusita, jokaera arriskutsu eta arduragabea iruditzen zaigu administrazio publikoak arlo horretan murrizketak egiten jarraitzea.

siendo la evolución de las últimas semanas de la pandemia, nos parece arriesgado e irresponsable por parte de la administración pública que se sigan llevando a cabo recortes en este ámbito.

Osasun-langileek lan-gainkarga jasaten dute pandemiaren osasun-kudeaketaren ondorioz. Ohiz kanpoko egoera berezi horri −orain, gainera, aurrekaririk gabeko txertaketa-kanpaina bat kudeatu behar da− bestelako gaixotasunek behar duten arreta gehitu behar zaio; izan ere, gaixotasun horiek ez dira desagertu. Hala, ez dirudi logikoa, gaur egun gero eta ugariagoak diren herritarren osasun-beharrei erantzuteko, pandemia baino lehen zeuden giza-baliabideak murriztea.

El personal sanitario está aguantando una sobrecarga de trabajo a consecuencia de la gestión sanitaria de la pandemia. A esta situación excepcional que en estos momentos tiene que gestionar una campaña de vacunación sin precedentes hay que sumar la atención del resto de enfermedades, las cuales, continúan. En consecuencia, no parece lógico que, para poder atender unas necesidades sanitarias de la población a día de hoy crecientes, se vaya a poder hacer con menos recursos humanos que los que había previamente a la pandemia.

Hala ere, horixe gertatzen ari da Intxaurrondoko anbulatorioan, azken hilabeteotan bi pediatra izatetik bat izatera igaro baita. Gure ustez, batez ere momentu hauetan, osasun-langileak inoiz baino beharrezkoagoak dira, eta, beraz, lehen mailako arreta indartu beharko litzateke.

Esto es precisamente lo que se está produciendo en el ambulatorio de Intxaurrondo, que ha visto cómo en los últimos meses ha pasado de tener dos pediatras a uno solo. Consideramos que, sobre todo en estos momentos, el personal sanitario es más imprescindible que nunca y por lo tanto lo que debería de hacerse es reforzar la atención primaria.

Gogora ekarri nahi dugu pediatria-zerbitzuek gainkarga handia zutela pandemia-egoeraren aurretik, pediatra bakoitzeko paziente-ratioa oso altua izanik, eta murrizketa berri horrek egoera larriagotu besterik ez duela egiten.

Queremos recordar que los servicios de pediatría venían teniendo una sobrecarga muy importante previo a esta situación de pandemia con un ratio de pacientes muy elevado por pediatra y que este nuevo recorte no hace más que agudizar su situación.

Intxaurrondoko anbulatorioko pediatria-zerbitzuarekin gertatutakoaz gain, ohartarazi digute anbulatorio bereko beste zerbitzu batzuetan ere langileak murriztuko dituztela. Gure ustez, funtsezkoa da udal gobernua honetan inplikatzea, haren bitartekaritza ezinbestekoa delako egoera hori eta hiriari erasaten dioten beste batzuk, hala nola Parte

Además de la situación que se ha producido con el servicio de pediatría en el ambulatorio de Intxaurrondo, nos alertan de una reducción del personal en otros servicios del mismo ambulatorio. En este punto creemos que es fundamental la implicación del gobierno municipal, cuya intermediación resulta imprescindible para que ésta y otras situaciones

Zaharreko anbulatorio berria jasaten ari den atzerapena, organo eskudunari helarazteko, kasu egin eta konpon ditzan.

que afectan a la ciudad, tales como el retraso en el nuevo ambulatorio de Alde Zaharra, puedan ser trasladadas al órgano competente para ser atendidas y solventadas.

Auzoetako beharrak eta lehen mailako arreta-zentro berriak atzeratu egin dira. Osasunak, oro har, eta, zehazki, pandemiaren intzidentziak klase-kondizioarekin duten harreman zuzena gogoratu behar dugu. Faktore sozial eta ekonomikoen eraginez, gizarte-egoera ahulean dauden pertsonek, gaur egungo pandemian, gaixotasunaren pronostiko okerragoa dute, oinarrizko osasun-egoera okerragoa dutelako. Hori dela eta, osasun-arreta handiagoa behar dute. Hala, bada, gaur egungo murrizketekin amaitzeaz gain, baliabide tekniko eta giza-baliabide gehiago jarri behar dira, auzorik ahulenetako errealitate sozioekonomikoa kontuan hartuta.

Las necesidades en los barrios y la puesta en marcha de nuevos centros de atención primaria se han retrasado. Debemos de recordar la relación directa que hay entre la salud, en general, y en concreto, la incidencia de la pandemia, y la condición de clase. Los factores sociales y económicos provocan que las personas en situación de vulnerabilidad social presenten en la actual pandemia un peor pronóstico de la enfermedad debido a su peor estado de salud de base. Esto requiere que necesiten una mayor atención sanitaria, de modo que además de acabar con los actuales recortes se incorporen mayores recursos técnicos y humanos atendiendo a la realidad socioeconómica de barrios más vulnerables.

Hori dela eta, honako mozio hau aurkezten dugu

Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOZIOA ARRUNTA

MOCIÓN ORDINARIA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta, zehatzago esan, Osasun Sailari eta Osakidetzari, gutxienez, duela urtebete Intxaurrondoko anbulatorioan zegoen langile-kopuruari eusteko, bi pediatra daudela bermatuta.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Vasco y, en concreto, al departamento de Salud y a Osakidetza a que mantenga como mínimo el mismo personal que hace un año en el ambulatorio de Intxaurrondo garantizando que haya dos pediatras.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta, zehatzago esan, Osasun Sailari eta Osakidetzari txosten bat egin dezatela Donostiako lehen mailako arreta-zentroetako langileriaren bilakaerari buruz, eta, azken urtean murrizketarik izan bada, lehen mailako arreta indartzeko behar diren langileak har ditzatela.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Vasco y, en concreto, al departamento de Salud y a Osakidetza a elaborar un informe de evolución del personal de los centros de atención primaria en Donostia y en el caso de que se haya producido algún recorte en el último año, procedan a incorporar el personal necesario para reforzar la atención primaria.

Donostia, 2021eko otsailaren 5a

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia"

Donostia, de 5 de febrero de 2021

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia"

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Olaia Duarte Lopez andreak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Olaia Duarte López y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**8. GAIAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DEL ASUNTO N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. GAIAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DEL ASUNTO N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**9. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, mendekotasuna eta ezgaitasuna duten pertsonentzako plaza publikoen estaldurari buruzkoa.**

“EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, egoitzetako plaza publikoen estaldura dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko urtarrilean, Estatuko Gizarte Zuzendarien eta Kudeatzaileen Elkarteak egindako txosten baten arabera, Hego Euskal Herrian 7.733 egoitza-plaza falta dira 65 urtetik gorako 100 pertsonako 5 plazara iristeko, OMEk gomendatuaren arabera.

18.522 egoitza-plaza publiko zein pribatu zeuden 2018an EAEn. Gehienek (13.984) finantzaketa publikoa zuten, %75ek, eta 4.538 pribatuak ziren. Beraz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako egoitzetan, 65 urtetik gorako 100 pertsonako plazen ratioa 3,76koa izan zen; beraz, 6.063 plaza falta dira.

Azken hamarkadan, EAEn, egoitza publiko batek urtean 11.000 euro balio du –Espainiako estatuko preziorik garestiena–, eta 2012. urtean % 5eko ratioa baino ez du gainditu. Urte horretan egoitza-plazen kopurua ere handitu egin zen, 26.437 batuketa egin arte.

Urtebete pasatu ondoren, datuak eta plaza faltak berdin jarraitzen dute. Hain zuzen ere,

**9. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la cobertura de plazas públicas para personas dependientes y con discapacidad.**

“Reyes Carrere Zabala, portavoz del grupo municipal EH Bildu, en base al artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presento la siguiente MOCIÓN ORDINARIA en relación a la cobertura de las plazas públicas de las residencias.

JUSTIFICACIÓN

En enero de 2020, según un informe elaborado por la Asociación Estatal de Directoras y Gestores en Servicios Sociales, en el País Vasco faltan 7.733 plazas residenciales para llegar a las 5 plazas por cada 100 personas mayores de 65 años que recomienda la OMS.

En 2018 había 18.522 plazas residenciales públicas y privadas en la CAPV. La mayoría (13.984) tenían financiación pública, el 75 %, y 4.538 eran privadas. Por tanto, en las residencias de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa la ratio de plazas por cada 100 personas mayores de 65 años fue de 3,76, es decir, faltan 6.063 plazas.

En la última década, en Comunidad Autónoma de Euskadi, una residencia pública tiene un precio anual de 11.000 euros, el precio más caro del Estado español, y solamente en 2012 ha superado la ratio del 5 %. En ese año también se incrementó el número de plazas residenciales hasta un total de 26.437.

Pasado un año, los datos y la falta de plazas siguen igual. De hecho, en declaraciones

otsailaren 1ean egindako adierazpenetan Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariek aitortu zuten 2020an plaza irekierak gelditu direla osasun-alarma egoera dela eta, eta 2021era begira irekiera plan bat abiatuko dutela.

Donostiaren kasuan, joan den urteko urtarrileko INEren datuetan oinarrituta, adinari dagokionez, hiriko biztanle gehienak 35 urtetik gorakoak dira, auzo guztiak aintzat hartuta. Are esanguratsuagoa da Erdialdeko eta Parte Zaharreko kasua, bizilagun gehienak 64 urtetik gorakoak baitira. Bestetik, 2019ko gizarte-ekintzako saileko memoriaren arabera, hiriko adineko pertsonen artean 1.055ek eskatu zuten mendekotasunarekin erlazionatutako egoitza baliabide bat. Hiriko poblazioaren adin eboluzioa ikusita, aurreikusi daiteke eskaera hauek goranzko joera izango dutela etorkizunean.

Horregatik guztiagatik, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, plangintza bat aurkeztu dezala Donostiak behar dituen egoitzetako mendekotasun eta ezgaitasun plaza publikoen estaldura bermatzeko eta 2020an izandako atzerapena orekatzeko.

Donostian, 2021eko otsailaren 5ean

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea”

realizadas el pasado 1 de febrero, representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa reconocieron que en el año 2020 se han paralizado las aperturas de plazas por el estado de la alarma sanitaria, y para el año 2021 pondrán en marcha un plan de apertura.

En el caso de San Sebastián, a partir de los datos del INE de enero del año pasado, en cuanto a la edad, la mayoría de la población de la ciudad supera los 35 años, si se tienen en cuenta todos los barrios. Es más significativo el caso del Centro y de la Parte Vieja, ya que la mayoría de los vecinos son mayores de 64 años. Por otro lado, según la memoria de la Dirección de Acción Social de 2019, 1.055 personas mayores de la ciudad solicitaron un recurso residencial relacionado con la dependencia. A la vista de la evolución de la edad de la población donostiarra, se puede prever una tendencia al alza de estas demandas en el futuro.

Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que presente un plan para garantizar la cobertura de las plazas públicas de dependencia y discapacidad de las residencias que San Sebastián precisa y compense el retraso sufrido en 2020.

En San Sebastián, a 5 de febrero de 2021

Reyes Carrere Zabala,
portavoz del grupo municipal EH Bildu”

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Aitziber San Roman Abete andreak eta Aitzole Araneta Zinkunegi andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Olaia Duarte López, D.ª Aitziber San Román Abete y D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 9. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO N.º 9 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**9. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.1. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua “g.00.1 MARÍAREN BIHOTZA” (A.U. “GR.03 SAGÜES”) lurzatiaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruz.**

“EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta “GR.03 SAGUES” hirigintza eremuko “g.00.1 Mariaren Bihotza” lursailaren hiri antolamenduko plan bereziaren gaineko KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi dio Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi eskuordeari, Udalbatzan aztertzeko. Mozio hau Lurraldearen Garapen eta Plangintza Batzordeak 2021eko otsailaren 15ean izandako bileran egindako interpelazioak ekarri du.

JUSTIFIKAZIOA

Eneko Goia alkateak 2021eko otsailaren 2rako deitutako Tokiko Gobernu Batzarreko gai-zerrendaren 12. puntuan hauxe zetorren: “Hirigintza sostengagarria. Hirigintza Antolaketako eta Exekuzioko Lege Eta Administrazio Zerbitzua. Hiria Antolatzeko Plan Berezia. Sagues GR.03 hirigintza esparrua, Mariaren Bihotza lursaila (g.00.1)”.

Gai hori onartzeari dagokionez, ordea, izugarrizko nahasmena dugu. Izan ere, aztergaien zerrendan aztergaitzat ageri bazen ere, puntu hori mahai gainean geratu zela jaso zen Gobernu Batzordeak izan zuen bileraren aktak, eta Alkatetzaren Kabinetearen prentsa-oharrak, berriz, Udal Gobernuak Plan Berezi horri hasierako onarpena eman ziola “informatu” zuen.

Hirigintza Sostengagarriko zinegotziari horren

**II.2.1. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el Plan Especial de Ordenación Urbana de la parcela “g.00.1 CORAZÓN DE MARÍA” (A.U. “GR.03 SAGÜES”).**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL a la delegada de Urbanismo Sostenible para su debate en Pleno sobre el Plan Especial de ordenación Urbana de la parcela “g.00.1 CORAZÓN DE MARÍA” (A.U. 2GR.03 SAGÜES”. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio del pasado 15 de febrero de 2021.

JUSTIFICACIÓN

En el Orden del día de la Junta de Gobierno Local, convocada por el alcalde Eneko Goia, de fecha 2 de febrero de 2021 se recogía, en su punto 12, lo siguiente: “ Urbanismo Sostenible. Servicio Jurídico Administrativo de Ordenación y Ejecución Urbanísticas. Plan Especial de Ordenación Urbana. Ámbito Urbanístico GR.03 Sagües parcela Corazón de María (g.00.1)”.

Es cierto que, con respecto a la aprobación del citado tema, asistimos a una auténtica ceremonia de la confusión. Así, si bien aparecía reflejado en el Orden del día como punto a tratar, sin embargo, en el acta de dicha Junta de Gobierno, figuraba que el citado punto había quedado sobre la mesa, mientras que la nota de prensa del Gabinete de Alcaldía “informaba” de que el Gobierno Municipal había aprobado inicialmente el citado Plan Especial.

Interpelada al respecto la delegada de

berri galdetu eta hark erantzun zigun “mundu guztiak egiten dituela akatsak”, eta akats horren arrazoia zera zela: “prentsa kabineteak, seguruenik, aurreko egunean egin edo igortzea prentsa oharrak”; hau da, benetan zer gertatu den jakin aurretik.

Urbanismo Sostenible, nos contestó que “todo el mundo tiene errores” y que el error viene motivado por el hecho de que “el gabinete de prensa muchas veces emite o formaliza sus nota de prensa, seguramente, el día anterior”; es decir, con anterioridad a saber lo que ha pasado realmente en la misma.

Era berean, Udal Gobernuak planeamendu horren onarpena berriz aztertzea erabaki ote zuen galdetuta, erantzun zigun mahai gainean geratu zela, “Idazkaritza Juridikoak akats batzuk ikusi zituela eta”. Ez zigun zehaztasun handiagorik eman “akats” horiek zein eta zenbat ziren; akats administratibo batzuk zirela besterik ez zuen adierazi, nahiz eta gure interpelazioan berariaz galdetu genuen zergatik utzi zuen Udal Gobernuak gai hori mahai gainean.

Asimismo, interpelada sobre si el Gobierno Municipal había decidido reconsiderar la aprobación de dicho planeamiento, se nos contestó que el asunto había quedado sobre la mesa “al detectarse una serie de errores por parte de Secretaría Jurídica”. En ningún momento se nos proporcionó un mayor grado de concreción sobre cuáles y cuántos eran esa “serie de errores” -que calificó de “administrativos”-, a pesar de que en nuestra interpelación se preguntaba expresamente por las razones por las que el Gobierno Municipal había decidido dejar la aprobación del citado asunto sobre la mesa.

Hala eta guztiz ere, funtsezko gaia Hirigintza Sostengagarriko Departamentuaren beraren txosten juridikoaren edukia da. Espedientean dago txosten hori, eta jartzen du begiratu egin behar dela lursailaren kalifikazio xehatua aldatzea komeni den, “g.00 komunitate ekipamendua” tipologiari eusteko aukera ere aurreikusten duela-eta Hirigintzako Plan Orokorrak, hala komeni dela justifikatu eta iritziz gero. Horrela, nagusitasunaren irizpideari lotzen natzaio, ea kasu zehatz honetan aldaketa hori egitea egoki den begiratzeko, eta, zehazkiago, ea HAPOn aurreikusitako salbuespenetako bat izan daitekeen”.

Con todo, la cuestión fundamental es la referida al contenido del informe jurídico del propio Departamento de Urbanismo Sostenible que obra en el expediente, donde se dice que es necesario que “se valore sobre la oportunidad de proceder en este caso al cambio de calificación pormenorizada de la parcela, ya que el PGOU prevé también la posibilidad de mantener la tipología “g.00 Equipamiento Comunitario” en aquellos casos que, por motivos justificados, se considere oportuno. Así me remito al criterio de la superioridad a fin de valorar en el caso concreto la oportunidad de este cambio y, más concretamente, si pudiera constituir una de las salvedades previstas por el PGOU”.

Alegia, txosten tekniko horren arabera, onetsi aurretik, begiratu egin behar da ea lursailaren kalifikazio xehekatua aldatzea egokia den ala ez.

Es decir, el citado informe técnico considera que, de forma previa a la aprobación del mismo, resulta necesario analizar si es oportuno, o no, el cambio de la calificación pormenorizada de la parcela.

Espedientean ez dago auzoan bertan edo inguruan “g.00 komunitate ekipamendu” lursail beharrik den ikusteko txostenik. Hala ere, Hirigintza Sostengagarriko zinegotziak ez zuen alderdi horren gaineko iritzirik eman nahi izan, ez eta Udal Gobernuak, hiriaren beharretarako, tipologia horri eustea egoki irizten dion erantzun ere.

Era berean, galdetu genion ea Udal Gobernuak beharrezkotzat jotzen duen beste hotel batzuk jartzea hirian; eta, hala iruditzen bazaio, ea zenbat. Hots handian hau galdetuta erantzun ziguten, ordea: “Zenbat hotel daude Grosen? Uste dut bi direla, eta, beraz, ez da eremu saturatua”. Hau da, Udal Gobernuak ez du azterketarik egin zergatik galdu diren Grosen 1.000 biztanle baino gehiago, nola banatzen diren erabilera turistikoko etxebizitzak edo erabilera turistikoko alokairuko gelak hirian, horren zer ehuneko dagoen Grosen, zer eragin duen ehuneko horrek auzoan eta etxebizitzaren prezioan, babestutako etxebizitzaren ehunekoan... Eta, hala ere, iruditzen zaio oraindik ere kabitzen direla Grosen bizitokitarako ez beste erabilera batzuk.

Hori dela eta, hauxe da nire KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, “g.00.1 MARIAREN BIHOTZA-CORAZÓN DE MARÍA” lursailaren tipologia aldatzeko eskaerari buruzko edozein erabaki hartu aurretik, azterlan bat egiteko auzoan bertan eta/edo haren inguruan zer ekipamendu toki behar dagoen ikusteko.

2.- Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari

No existe en el expediente informe alguno que analice las necesidades de parcelas “g.00” de “Equipamiento Comunitario” en el propio barrio o entorno poblacional. A pesar de ello, la delegada de Urbanismo Sostenible no quiso a entrar a valorar tal aspecto, ni tampoco a contestar si el Gobierno Municipal consideraba oportuno, para las necesidades de la ciudad, mantener las citada tipología.

